



Hau da kirol indarkeriarekin
688 655 099
amaitzeko zenbakia

WATS euskaltel 688 655 099

WATS Team eta Euskaltelek “Kiroleko indarkeriaren aurkako telefonoa” aurkezten dute

Xabi Prietok, Real Sociedad-eko jokalaria eta WATS Team-eko taldekidea, eta Koldo Unanuek, Euskalteleko zuzendari orokorrak gaur goizean prentsa oharrean aurkeztu dute “**Kiroleko indarkeriaren aurkako telefonoa**”. Zerbitzu berritzaile honek kanal seguru eta konfidentzial bat eskaintzen die kirol munduan jazarpen eta indarkeriaren biktima izan diren pertsoneri.

Gaur egun, eskola-jazarpenera ez da ikasgelan soilik ematen, baita eskolaz kanpoko kirol klaseetan eta kirol basean ere. Neskamutil askok egunero sufritzen dute indarkeria, jazarpen edo abusuak kirol-esparruan.

Hori dela eta, WATS Team-ek - Euskaltelen laguntzarekin - “**Kiroleko indarkeriaren aurkako telefonoa**” sortzea erabaki dute, kirolean ematen den jazarpen eta indarkeriari aurre egiteko. Estatuko lehenengo telefonoa da, kirol munduan gertatzen diren indarkeriak bildu eta adierazten dituen. Kanal seguru eta konfidentzial honek **688 655 099** zenbakiko **Whatsapp mezuen bidez** funtzionatzen du, gazte guztientzako eskuragarria izan daiteke. Behin abisua jasota, WATS Team-eko adituak (pedagogoak, psikologoak eta hezitzaileak) kasua aztertu eta 24 ordu igaro aurretik erantzun bat emateko konpromisoa hartuko dute, salaketa prozesuaren inguruan aholkatzeko eta tramite guztietan laguntzeko.

Modu hontan, WATS Team eta Euskaltelek **errespetuan, bizikidetzan eta giza balioetan oinarrituriko haurren eta gazteen kiroletan konpromisoa berresten dute**. Ekimen honek kirol munduko indarkeria eta jazarpenera ekiditeko teknologiaren garrantzia balioan jartzen du. **Kirol munduko indarkeriaren aurkako telefonoak** kontsultei, zalantzei eta salaketei erantzuna ematen die:

- ahozko indarkeria, fisiko eta psikologikoa
- abusu sexualak
- arrazakeria eta xenofobia
- berdinen arteko jazarpenera
- matxismoa
- LGTBI-fobia



Xabi Prietok baieztatu du *“WATS Team-en kirol munduko indarkeriaren aurkako talde handiena izan nahi dugu, eta apurka apurka bide honetan aurrera goaz. Arbitroei, eskolei, club-ei eta gurasoei zuzenduriko gure formakuntzen bitartez dagoeneko 600 entrenatzaile gaitu ditugu balioetan oinarrituriko hezkuntzan. Honek 6.000 gazte kirolari eta familietan inpaktu positibo bat izan du”*. Kirol indarkeriaren aurkako telefono zerbitzu berriaren helburua *“kirol indarkeriaren biktimentzako laguntza eskaintzea da, baita pertsonen garapenerako kirol espazioak sortzea ere”*.

Bere aldetik, **Koldo Unanuek**, Euskalteleko zuzendari orokorrak azaldu du ekimen honen babesarekin *“kirol eta berdintasunarekin dugun konpromisoa osatzen dugu. Talde erreferenteak babesten ditugu, besteak beste Athletic, Real Sociedad, Alavés, Eibar eta Osasuna. Horrez gain, berdintasuna nabarmentzen dugu, Athletic-eko, Real Sociedad-eko eta Osasunako nesken taldeen babesleak izanik. Ekitaldiak eta lehiaketa inklusiboak antolatzen ditugu eta momentu hontan, gure esperientzia teknologikotik, pertsonen arteko komunikazio zerbitzu bat eskaintzen dugu balioetan oinarrituriko hezkuntzan, kirolean eta gizartean orokorrean beharrezkoa dena”*.

WATS Team 2016an Bilbon sorturiko startup bat da, Mondragon Unibertsitatearekin lotura duena eta Tiimiakatemia Finlandiako metodologian oinarriturik dagoena, Finlandiako Gobernuak saritua. WATS Team-eko hiru sortzaileek, **Lander Iraragorri**, **Alex Navarro** eta **Antonio Pipaón** ekintzaileak, kiroleko indarkeriari aurre egin nahi diote eta duela hiru urtetik horretan lanean dabiltza giza balioetan formakuntza eta kirol munduko indarkeriaren prebentzioan. WATS taldearen aurpegiak **Julen Guerrero**, **Xabi Prieto**, **Vicente del Bosque**, **Jero García** eta **Patricia Ramírez** dira, baina haiekin batera 25 profesionalak baino gehiagok lan egiten dute. Perfil desberdinez osaturik dago taldea: psikologoak, hezkuntza perfilak, haurtzaroko eskubideen inguruan adituak, finantzetako pertsonak, marketing-ari buruz dakitenak edo komunikazioko arduradunak.

Informazio gehiago:

www.wats.team/telefono

Komunikabideei arreta eta elkarrizketa eskaerak:

Jon Arregi – Komunikazio arduraduna

jon@wats.team

665 723 909

Indarkeriarekin amaitzeko zenbakia:

- INDARKERIA FISIKOA ETA PSIKOLOGIKOA
- SEXU ABUSUAK
- ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIA
- BERDINEN ARTEKO JAZARPENA
- ERASO MATXISTAK
- LGTBI FOBIA

WATS euskaltel 688 655 099